# BAI NOSKI, ADMINISTRAZIOAREKIN EUSKARAZ

**Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarroi aukera emango digu, besteak beste, berarekin ditugun harremanetan euskara hizkuntza hobetsia edo partekatua izateko. Hori dela eta, errenta aitorpena baliaturik, proposatzen dizugu Gipuzkoako Ogasunarekiko harremanetan euskara hobestea eta beste foru departamentuei zure datu jakin batzuk uztea baimentzea.**

## Nola hobetsi euskara Aldundiarekiko harremanetan, aitorpen modalitatearen arabera

| Internetekoa | Paperezko inprimakia | Autolikidazio proposamena | Aitorpen mekanizatua |
|---|---|---|---|
| • Interneteko nabigatzailearen hizkuntza konfigurazioan, euskara aukeratu<br>• Aldundiaren webetik ZergaBidea laguntza programa jaitsi eta aitorpen berria sortu<br>• “Aitortzailearen datuak” atalean, euskara aukeratu **komunikazio hizkuntza** moduan<br>• “Datu pertsonalak” atalean:<br>a) Euskara aukeratu Ogasunarekiko harremanetan **hobetsitako hizkuntza**<br>b) Identitate eta harreman datu jakin batzuk beste foru departamentuei uztea **baimendu** | Inprimakiaren lehen orrian:<br>a) Euskara aukeratu Ogasunarekiko harremanetan **hobetsitako hizkuntza**<br>b) Identitate eta harreman datu jakin batzuk beste foru departamentuei uztea **baimendu** | • Proposamena onartzean:<br>a) **902 100 040** telefonora deituz gero, **1 zenbakia sakatu**, Errentakoekin euskaraz egiteko<br>b) Internetez eginez gero, **3. pausoan** harremanak euskaraz izan nahi dituzula **aukeratu**<br>• **030 eredua** bulego tributario batean aurkeztu edo korreoz bidali, identitate eta harreman datu jakin batzuk beste foru departamentuei uzteko | • **Euskaraz zuzendu** errenta bulegoko errenta teknikariari<br>• Teknikariari aitorpenaren likidazioa euskaraz egiteko **asmoa adierazi**<br>• Teknikariak galdetzean, Ogasunarekin harremanetan **hobetsitako hizkuntza** euskara aukeratzen duzula **erantzun**<br>• Identitate eta harreman datu jakin batzuk beste foru departamentuei uztea **baimentzeko, 030 eredua aurkeztu:**<br>a) Aitorpena **bulego tributario batean** egiten baduzu, **erregistroan** aurkeztu eredua<br>b) Aitorpena **errenta bulego batean** egiten baduzu, **harrerako langileak** hartuko dizu eredua |

**Saregin**

Lanean euskararen erabilera soziala
sustatzen duen Gipuzkoako Foru Ogasuneko kolektiboa